

DURANGOKO AZOKA KRONIKA

Ikastolako irteera zela eta, abenduaren 2an, ostirala, Durangoko azokan egon ginen. Hasteko, 8:30ean klase normala izan genuen. Bukatu zenean, hau da, 9:20an behar genuen guztia hartu eta patioan bildu ginen 2. mailako ikasleekin. Jarraian autobusera joan eta 9:39an autobusa martxan jarri eta Durangora abiatu ginen. Ordu bat egon ondoren ipurdiak autobuseko eserlekutan itsatsiak, azkenik, 10:39ean iritsi ginen.

Lehenik eta behin, tailerra hasi aurretik argazki bat egin eta denbora librea utzi ziguten, liburuak eta azoka begiratzeko.

11:40 zirenean gure irakasleak esan zigun tokian bildu ginen eta tailerra bertan ez zela konturatu ginen. Beraz, 12:00etan tailerra zen tokira abiatu ginen eta Ahotsenean sartu ginen. Barruan, Josu Bergarari elkarrizketa bat egin genion eta bere disko berriaren hainbat abesti abestu zizkigun.

12:26an, Ahotseneatik atera eta 10 minutu inguruko azken buelta eman genuen. 12:40an, gehienak, Durangoko atean geunden autobusera abiatzeko asmoz, baina 5 ikasle falta ziren. Hala ere, gu autobuserantz joan ginen eta bost minutu geroago falta ziren bost ikasleak eta 2. mailako ikasleak agertu ziren.

Autobusa iritsi zen 12:50ean, eta autobusean geldi egon ginen 12:57ak arte. Bidaian zehar autobus gidariak musika ipini eta abesten egon ginen bidaia bukatu arte. Bukatzeko, 13:55ean Lauaizetara iritsi ginen ordu bateko bidaia egin ondoren.

Jendearen iritzia orokorrean, ona da. Baina, espero zuten baino jende gehiago egon da azoka honetan. Elkarrizketatu dugun jendeak ondo pasa duela azaldu digu eta beste ikastetxeetako jendea ikusi eta ezagutu dituela. Honekin batera iruditu zaie azoka hau esperientzia berri bat ezagutzeko aukera izan dela.

Elkarrizketatutako jendea musika tailer batera joan zen eta musikariari egindako galderak eta berak azaldutako gauzak ondo ulertu dira. Josu Bergarak azaldutakoa asko interesatu zaie.

Orokorrean jendeak esan du azokara bueltatuko zirela, oso esperientzia ona izan delako eta klasea galtzen duzulako. Honekin batera, gazteek esan

dute egun osoa edo gutxienez ordu batzuk behiago egongo zirela Durangon. Ikastetxeko gazte horiek, ideia ona izan dela uste dute, gauza berriak egiteko eta ikasteko aukera ona izan dutelako, gutxi gorabehera gazteek 30 postu edo gehiago ikusi zituztela azaldu digute. Gehienek ez dute uste bere onerako izan denik irteera hau, tailerlean asko ikasi dutelako baina, postuetatik paseatzean ez dute ezer berririk ikasi.